



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko irailaren 30a

104. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Antsoingo udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldiko, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Antsoaingo udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 8an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Antsoaingo udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Antsoaingo udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Helburua (5. or.).

III. Norainokoa (5. or.).

IV. 2013ko kontu orokorrari buruzko iruzkia (6. or.).

IV.1. Udalaren 2013ko ekitaldikokontuorokorra (6. or.).

IV.2. Legezketasuna (6. or.).

IV.3. Udalaren 2013ko egoeraekonomiko-finantzarioa (6. or.).

IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioaren betetzea (9. or.).

V. Udalaren 2013ko kontu orokorraren laburpena (10. or.).

V.1. 2013ko aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria (10. or.).

V.2. 2013ko aurrekontu-erabakia bateratua (11. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakina 2013ko abenduaren 31n (11. or.).

V.4. Transferentzia arrunten ondoriozko gastuak (12. or.).

V.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua 2013an (13. or.).

VI. Udalari eta haren menpeko enteei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (14. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (14. or.).

VI.2. Langileak (15. or.).

VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (16. or.).

VI.4. Transferentzia arrunten ondoriozko gastuak (17. or.).

VI.5. Inbertsioak (18. or.).

VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (18. or.).

VI.7. Hirigintza (20. or.).

Eranskina. Udalaren 2013ko kontu orokorraren oroitidazkia.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean:

www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganberak Antsoingo Udalaren eta haren menpeko entearen 2013ko kontu orokorraren erregularitasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Antsoingo udalerrak 1,91 km²-ko azalera du, eta 2013ko urtarrilaren 1ean, 10.976 biztanle dauka.

Tokiko zerbitzu publikoak emateari begira, Udalak erakunde autonomo bat sortua du kirola eta kultura kudeatzeko.

2013ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2013-12-31n
Udala	7.287.781	6.973.047	68
Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatua	307.960	89.476	3
Bateratua, guztira	7.595.742	7.062.523	71

2013an, Udalak 218.484 euroko ekarpena egin dio, guztira, bere erakunde autonomoari.

Udala, gainera, honako hauek kidea da:

a) Iruñerriko Mankomunitatea: haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua eta eskualdeko hiri-garraioari dagozkion zerbitzuak eta taxi-zerbitzuak.

b) Antsoain, Berriozar, Iza eta Xulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea: haren bidez ematen ditu etxez etxeko laguntza, drogamenpekotasun-programak, harrera eta orientabide sozialaren zerbitzua, haurtzaroaren eta familiaren zerbitzua, gizarteratzea eta lan munduan sartzeko zerbitzua, babestutako enplegu soziala eta herritar etorkinekiko ekintza-zerbitzuak.

Mankomunitatean dituen zerbitzu hauek guztiek ondoko taulan adierazten diren gastuak eragin dizkiote Udalari:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2013an
Iruñerriko Mankomunitatea-Eskualdeko garraioa	196.818
Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	202.520

Laburbilduta, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Udal zerbitzuak	Udala	Erakunde autonomoak	Mankomunitatea	Zerbitzuen kontratazioa
Zerbitzu administratibo orokorrak	X			
Oinarrizko gizarte-zerbitzua			X	
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua			X	
0-3 urteko haur-eskolak	X			
Musika eskola				X
Hirigintza	X			
Lorategiak	X			X
Hiri-hondakinak			X	
Ur-hornidura			X	
Kale garbiketa				X
Garraio publikoa			X	
Liburutegia-ludoteka	X			
Kontsumitzailearen Arreta Zerbitzua				X
Kaleen eta bideen mantentzea	X			
Kultura	X	X		
Kirolak	X	X		
Kirol-jardueren kudeaketa				X
Udal kiroldegia	X			X
Babestutako enplegu soziala			X	
Diru-bilketa exekutiboa				X

Toki entitateari 2013ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa funtsean honakoek osatzen dute: Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1995 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere. Entitatearen aurrekontua 2013ko apirilaren 24an onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak. Halaber, Osoko Bilkura horrek berak betetze-oinarriak onetsi zituen. 2014ko ekainaren 25eko Osoko Bilkurak 2013ko kontuak onetsi zituen.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2013ko kontu orokorraren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2013ko ekitaldiko kontu orokorreari buruz egindako oroitidazkiarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Antsoaingo Udaleko eta bere erakunde autonomoetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Antsoaingo Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Antsoaingo Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2013ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- Udalak 2013an izandako finantza-jarduerari aplikatzekoa zaion legeriaren betetze-maila.

- Udalaren finantza-egoera 2013ko abenduaren 31n.

- Zenbateraino betetzen diren Ganbera honek 2012ko ekitaldiari buruzko txostenean emandako aholkuak.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzen jotzen diren aholkuak, Udalak eta haren menpeko entitateek ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

III. NORAINOKOA

Antsoaingo Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak honako elementu nagusiak dauzka:

- Erakundearen beraren kontua eta haren erakunde autonomoarena: Aurrekontuaren likidazioari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

- Kontu orokorraren eranskinak: egoera-orri bateratuak (Udala eta erakunde autonomoak), oroitidazkia eta zorraren egoera-orria.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren Fiskalizazio Eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaprobea edo prozedura tekniko guztiak bildu dira; prozedura horien barruan, laginketaren teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa erabili da.

Zehazki, Udalarari eta haren erakunde autonomoari dagokionez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikatutako oinarriko prozedura administratiboak ere; halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nabarmenenak ebaluatu dira.

IV. 2013ko KONTU OROKORRARI BURUZKOIRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Antsoaingo Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau ateratu dugu:

IV.1. UDALAREN 2013ko EKITALDIKOKONTU OROKORRA

- Oraindik ere ez da amaitu 1995eko inbentarioaren gaurkotze- eta onespren-prozesua.

Arestian aipatutako salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko behar den informazio guztia biltzen du, aplikatzeko den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Egindako lanaren norainokoaren arabera, esan daiteke 2013ko ekitaldian Udalaren eta haren erakunde autonomoaren jardura ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkontasun-printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3. UDALAREN 2013ko EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 7,94 milioiko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 4,46 –hau da, 0,35 milioi– handitu da aurrekontu-aldaketan bitartez: Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 8,29 milioikoak dira. Aldaketa hauek, funtsean, inbertsioen kapituluan dute eragina.

Aitortutako betebeharrak 7,60 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 92ko betetze-maila izan dute. Betetze-maila hori justifikatzen da funtsean ondasunetan eta zerbitzuetan gastu txikiagoak izan direlako; izan ere, gastu horiek aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 15 txikiagoak dira.

Aitortutako eskubideak 7,06 milioi eurokoak dira, eta ehuneko 85eko betetze-maila izan dute; ehuneko horren azalpena, funtsean, tributu bidezko diru-sarreraren betetze txikia izan da –bereziki EIOZaren betetze txikia–.

Haien izaerari erreparatuta, gastu arruntak eta kapital-gastuak gastuen ehuneko 95 eta ehuneko 5 dira, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak diru-sarrera guztien ehuneko 99,86 dira; diru-sarrera horien ehuneko 41,4 jasotako transferentzietatik datoz.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili diren eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantzabidea	Zenbatekoa
Langileak	44	Tributu bidezko diru-sarrerak	58
Bestelako gastu arruntak	50	Transferentziak	42
Inbertsioak	4	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	0
Finantza-karga	2	Zorduntzea	0
	100		100

Hona Udalaren 2013rako aurrekontuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2012koarekiko alderaketa:

	2012	2013	Aldea (%) 2013/2012
Aitortutako betebeharrak, guztira	8.070.714	7.595.742	-6
Likidatutako eskubideak, guztira	7.286.726	7.062.523	-3
Gastuen betetzea (%)	91	92	1
Diru-sarreraren betetzea (%)	82	85	4
Ordainketak (%)	95	95	0
Kobratutakoa (%)	92	94	2
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	7.845.738	7.207.452	-8
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	7.812.000	7.179.346	-8
Inbertsioen gastuak (6. eta 7. kapituluak)	104.435	260.819	150
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	120.541	127.471	6
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	7.286.726	7.052.923	-3
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	4.369.376	4.116.092	-6
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	0	9600	
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	40	42	5
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	57	57%	-99
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	-663.447	-405.748	-39
Aurrekontu-emaitza doituia	-685.865	-297.560	-57
Aurrezki gordina	-525.274	-126.423	-76
Finantza-zama (3tik 9ra)	154.280	155.577	1
Aurrezki garbia	-679.554	-282.000	-59
Zorpetze mailaren %	2	2	0
Zorpetze mugaren %	-7	-2	-71
Zorpetze-ahalmena (%)	-9	-4	-56
Diruzaintza-gerakina, guztira	1.872.475	809.326	-57
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-111.646	-775.306	594
Zor bizia	1.385.958	1.258.487	-9
Diru-sarrera arruntan gainera zor bizia (%)	19	18%	-99
Zor bizia biztanleko	127	114,65	-10
Aurrezki gordinaren gainera zor bizia	-3	-9,95	232

2013an, Udalak aurreko ekitaldian baino ehuneko 6 gutxiago gastatu du eta aurreko ekitaldian baino ehuneko 3 gutxiagoko diru-sarrerak izan ditu.

Gastu arruntetan, berriz, ehuneko zortziko jaitsiera izan da; eta diru-sarrera arruntek, aldiz, ehuneko hiru egin dute behera. Tributu izaerako diru-sarrerak ehuneko sei jaitsi dira.

Aurrekontu saldo ez-finantzarioa negatiboa da, 406.000 eurokoa, eta horrek adierazten du diru-sarrera ez-finantzarioak ez direla izaera bereko gastuak finantzatzeko behar adinakoak izan. Hala eta guztiz ere, saldo hori jaitsi egin da, zeren eta 2012ko ekitaldian negatiboa baitzen (-663.000 euro).

Aurrekontu-emaizta doitu -0,3 milioikoa da; aurreko urtean, berriz, -0,6 milioikoa izan zen. Defizit hori sortu da diru-sarrera arruntak ez direlako izan funtzionamendu gastuak eta finantzazama finantzatzeko behar adinakoak. Halaber, kapital bidezko diru-sarrerek ez dituzte finantzatzen egindako inbertsioak.

2013an, bai aurrezki gordina, bai aurrezki garbia negatiboak izan ziren, eta haien zenbateko negatiboa ehuneko 76, aurrezki gordinaren kasuan, eta ehuneko 59, aurrezki garbiaren kasuan, jaitsi ziren.

Zorpetze-maila ehuneko 2koa da, eta bere muga negatiboa da, ehuneko 2koa hain zuzen; horrenbestez, ez du zor berririk hartzeko gaitasun ekonomikorik.

Diruzaintzako guztizko gerakina 0,8 milioikoa da, eta ehuneko 57 egin du behera 2012koarekin alderatuta. Gastu arruntetara bideratutakoa ehuneko 594 igo da, -0,11 milioikoa izatetik -0,78 milioikoa izatera iragan baita.

Epe luzeko zorra 1,26 milioikoa da, eta ehuneko 8 egin du behera 2012koarekin alderatuta; zor hori –biztanle bakoitzeko 115 eurokoa dena, guztira– entitatearen diru-sarrera arruntaren guztizkoaren ehuneko 17 da. Bada, ehuneko hori gaur egun zorpetze berria hartzea mugatzen duen ehuneko 110eko lege-mugaren azpitik dago.

Ondorioz, eta azken laburpen gisa, Antsoaingo Udalak erakusten du bere finantza-egoera gero eta gehiago hondatzen ari dela; egoera horri, orain arte, konponbidea bilatu zaio azken urteotan udal-barruti honetan abian jarri diren hirigintza-jarduera handietatik jasotako baliabideei esker.

Horregatik, bada, eta epe ertainean Udalaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko helburuarekin, ezinbestekoa da Udalak, dagokion planaren bitartez, hainbat neurri hartzen jarraitzea, bere gastu arruntei eusteko eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko aukera emanen diotenak. Horri dagokionez, Udalaren oroitidazkiak udal zerbitzuen kostuei eta haien estaldura-mailari buruzko azterlan bat jasotzen du.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioaren betetzea kalkulatu da toki korporazioei egokitutako kontabilitate nazionalaren defizita kalkulatzeko eskuliburua aplikatuz –eskuliburu hori Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzaitza Nagusiak egindakoa da–. Emaizta hurrengo taulan azaltzen da:

Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	-405.747,70
Diru-bilketa ez-seguruko diru-sarrerak	-146.384,37
Sortutako interesak	2.602,28
Finantzaketa-beharrak	-549.529,79

Udalak gastuaren eta finantza-iraunkortasunaren araua bete du.

Udalaren kontu-hartzaileak oroitidazkian agerian jartzen du ezin izan dela 2013ko ekitaldian oreka finantzarioa lortu, nahiz eta gastuari eusteko arauak aplikatu; "hori dela eta, udalbatzak neurri zehatzak hartu beharko ditu egoera honi konponbidea emateko", Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoko 22. eta 23.1 artikuluetan ezarritakoari jarraituz. 2013ko urriaren 30ean, Udaleko Osoko Bilkurak plan ekonomiko-finantzario bat onetsi zuen. Plan horren helburua da aurrekontu-oreka berrezartzea urtebeteko epean. Plan horrek 2014ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Halaber, 2013ko ekitaldian zehar, zenbait neurri hartu ziren, urte horretako gastua gutxitzean eragina izan dutenak; honakoak, besteak beste: kirol instalazioen baterako kudeaketa, bidegarbiketarako kontratuak berrikustea, udal eraikinen garbiketa berrikustea, aseguru polizak berrikustea eta lorezaintza eta argiteria publikoko zerbitzua berregituratzea.

Fiskalizazioaren iritzia ezertan ukitu gabe, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu egungo krisi ekonomikoko arriskuen ondorioz dagoen egoera, egoera horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta betetzean zorrotz jokatzeko eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarrizko baldintza izan behar dute.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Ganbera honen 2012ko ekitaldiko txostenari dagokionez, garrantzizko aholku hauek oraindik gauzatzeko daude, txosten honen VI. atalean berresten den bezala:

- *Aurrekontua indarrean den legediak ezarritako epeetan egin eta onestea, kudeaketarako oinarrizko tresna izan dadin. Adierazi beharra dago 2014rako aurrekontua 2013ko abenduan onetsi zela.*

- *Hirigintza planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitzeko prozesua burutzea.*

- *Udal-ondasunen inbentarioaren eguneratzea burutzea.*

V. UDALAREN 2013ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, 2013ko kontabilitatearen egoera-orri bateratu (Udala gehi erakunde autonomoak) garrantzitsuenak azaltzen ditugu.

V.1. 2013ko AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA**Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Beteta-koaren ehunekoa	Ordainketak	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	3.497.155	14.356	3.511.511	3.357.749	96	3.309.567	99	48.182
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	3.594.716	-14.460	3.580.257	3.296.168	92	2.985.068	91	311.099
3. Finantza-gastuak	64.743		64.743	28.106	43	28.106	100	0
4. Transferentzia arruntak	612.001	16	612.018	525.429	86	515.841	98	9.588
6. Inbertsio errealak	33.100	354.273	387.373	260.819	67	257.201	99	3.618
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	136.357		136.357	127.471	93	127.471	100	0
Guztira	7.938.073	354.186	8.292.259	7.595.742	91	7.223.254	95	372.488

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Beteta-koa (%)	Kobrantzak	Kobranta (%)	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	2.574.764	0	2.574.764	2.436.359	95	2.154.976	88	281.384
2. Zeharkako zergak	238.505	0	238.505	27.403	11	26.313	96	1.090
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.099.735	0	2.099.735	1.652.329	79	1.568.859	95	83.470
4. Transferentzia arruntak	3.008.667	0	3.008.667	2.923.763	97	2.850.687	97	73.075
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	16.402	0	16.402	13.068	78	10.247	78	2.821
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	0	0	0	0	0
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	9600	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboak	0	354.186	354.186	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira	7.938.073	354.186	8.292.259	7.062.523	85	6.611.082	94	441.841

V.2. 2013ko AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2012ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	7.286.726	7.062.523
- Aitortutako betebeharrak	8.070.714	7.595.742
Aurrekontu-emaiza	-739.989	-533.219
Doikuntzak		
- Finantzetaren desbideratze positiboak	0	8.023,38
+ Finantzetaren desbideratze negatiboak	8.242	1.289
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzatutako gastuak		
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	89.882	242.394
Aurrekontu-emaiza doitua	-685.865	-297.560

V.3. DIRUZAINZA-GERAKINA 2013ko ABENDUAREN31n

Kontzeptua	2012ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	1.474.596	946.038
(+) Diru-sarrerak: aurtengo ekitaldia	554.019	444.928
(+) Diru-sarrerak: Itxitako aurrekontuak	1.526.392	1.632.379
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	75.315	62.005
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	681.132	1.191.514
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak		1.761
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	779.434	1.387.487
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	660.321	372.488
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	200	16.136,20
(+) Diru-sarriren itzulketak	1.040	1.727
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	394	274,03
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	118.268	997.411
(+) Diruzaintzako funts likidoak	1.169.256	1.250.776
(+) Finantzaketa-desbideratze metatu negatiboak	8.057	0
Diruzaintza-gerakina, guztira	1.872.475	809.326
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	110.764	109.476
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	1.873.357	1.475.157
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-111.646	-775.306

V.4. 2013ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZE BATERATUA

Aktiboa

Deskribapena	2013	2012
A Ibilgetua	23.149.723	26.080.752
1 Ibilgetu materiala	22.779.899	25.126.061
2 Ibilgetu ez-materiala	351.751	482.940
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0	453.678
4 Herri-ondasunak	15.731	15.731
5 Finantza-ibilgetua	2.342	2.342
C Zirkulatzaila	3.393.410	3.328.260
8 Zordunak	2.139.312	2.155.727
9 Finantza-kontuak	1.254.098	1.172.533
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	3.502.008	603.040
Aktiboa, guztira	30.045.141	30.012.052

Pasiboa

Deskribapena	2013	2012
A Funts berekiak	27.397.132	27.846.266
1 Ondarea eta erreserbak	17.738.800	18.197.534
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoak (mozkina)	0	0
3 Kapitaleko diru-laguntzak	9.658.332	9.648.732
C Epe luzeko hartzekodunak	1.258.487	1.385.958
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	1.258.487	1.385.958
D Epe laburreko hartzekodunak	1.389.552	779.828
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	1.387.762	779.828
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	1.761	0
Pasiboa, guztira	30.045.171	30.012.052

V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2013AN

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2013	2012	Deskribapena	2013	2012
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Bukaerako erosketak	0	0
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	1.316.553	1.447.217
61 Langile-gastuak	3.359.769	3.362.453	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	328.695	376.444
62 Gastu finantzarioak	28.106	33.738	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	1.764.166	1.786.014
63 Tributuak	12.782	26.547	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	489.064	478.416
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	3.281.365	3.842.833			
65 Gizarte prestazioak	0	0	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	2.923.763	2.901.221
67 Transferentzia arruntak	525.429	580.166	77 Kapitalaren gaineko zergak	210.533	283.466
68 Kapital-transferentziak	0	0	78 Bestelako diru-sarrerak	20.149	13.947
69 Amortizazioarako eta hornikuntzarako zuzkidurak	2.733.114	0	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	0	0
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	0	0	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	2.887.643	559.012
Guztira	9.940.565	7.845.738		9.940.565	7.845.738

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2013	2012	Deskribapena	2013	2012
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	2.887.643	559.012	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	0	0
82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo zorduna)	0	0	82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	11.325	44.028	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	11.325	44.028
89 Etekin garbia guztira (saldo hartzekoduna)	0	0	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	2.898.967	603.040
Guztira	2.898.967	603.040	Guztira	2.910.292	647.068

VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTEEI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko iruzkin eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- 2013ko aurrekontua 2013ko apirilaren 24an onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak. Atzerapen hori udal taldeen arteko adostasun faltari zor izan zitzaion.

- Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta gaurkotzeko eta formalki onesteko dago.

- Udalak bere ibilgetuko elementuen prezioaren beherapena kontabilitatean jasotzen du. Oroitidazkiak zerbitzuen kostuari eta kostu horren finantzaketari buruzko analisi bat badauka.

- Ez da aurkitu nabarmentzeko moduko zenbatekoa duen 2013ko fakturarik, 2014ko aurrekontuari egotzi zaionik.

- Udalak 2013an hornitzaileei ordaintzeko erabili duen epeari buruzko azterketa eginik, ondorioztatzen da ezen, aztertutako laginari erreparatuta, arau indardunetan ezarritakoa betetzen ari dela, oro har.

- Udala zenbait prozedura judizialean sartuta dago. Horien artean, nabarmentzekoa da arkitekto batek aurkeztutako erreklamazioa, atzemandako eraikuntza-akatsak konpontzeko obren ordezkotzeko betearazpenaren eta sortutako kalte-galeren ondoriozko gastuen likidazioaren aurkakoa (0,4 milioi euro dira); 2008koak dira biak. Aipatzekoa da, halaber, auzitan zegoen prezio zuzen bat, haur eskolako lokalen desjabetzetik heldutakoa, Udalak ordaindu behar izan duela; izan ere, Nafarroako Auzitegi Nagusiak 283.500 euroko prezio zuzena ezarri zuen, gehi kasuko legezko interesa.

- Kontu-hartzaitzak 1995ean inbentario bat egin zuen, eta 2007an berrikusi zen, ibilgetu materialaren, ibilgetu ez-materialaren eta herri-lurren kontabilitate-kontuekin alderatuz. Gero, udal zerbitzu batzuen kostuak aztertzearen kariatara, urtero gaurkotzen joan da 2013ra arte: kontuetan gertatutako balio-galerak kontabilizatu dira eta altak ere sartu dira.

- Udalaren epe luzeko zorraren amortizazio-egutegia, 2013ko abenduaren 31n, honako taulan azaltzen duguna da:

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2014	142.250,90	11	11
2015	142.250,92	11	23
2016	129.629,66	10	33
2017-2021	585.042,00	46	79
2021-2024	259.313,73	21	100
Guztira	1.258.487	100	

Hona gure gomendioak:

- *Aurrekontuak indarrean den legediak ezarritako epeetan egin eta onestea, kudeaketarako oinarritzko tresna izan daitezen.*

- *Udal-ondasunen inbentarioaren eguneratze-prozesua burutzea, eguneratze eta kontabilitate-jarraipen etengabekoak bideratuko dituzten prozedurak diseinatuta.*

VI.2. LANGILEAK

Langileen gastua 3,36 milioi eurokoa da; hau da, 2013an sortutako gastu guztien ehuneko 44.

2012ko ekitaldiari dagokionez, kapitulu hori ehuneko 0,08 jaitsi da, honako xehetasunen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Ehuneko Aldea
	2012	2013	
Goi-karguak	120.251	119.186	-0,89
Kabineteko behin-behineko langileak	0	10.236	
Funtzionarioak	1.414.542	1.436.227	1,53
Langile finkoak	233.080	199.573	-14,38
Aldi baterako lan-kontratudunak	533.249	518.438	-2,78
Bestelako langileak	55.601	41.428	-25,49
Gizarte-zamak	1.003.770	1.032.660	2,88
1. kapitulua, guztira	3.360.493	3.357.748	-0,08

2013ko ekitaldian, 2009ko ekitaldian luzatzen joan den plantilla organikoa onetsi zen, 64 lanposturekin. Guztira, 19 lanpostu hutsik daude eta horietatik 13 aldi baterako beteta daude. Hona horri buruzko taulak:

Zenbat	Lanpostuak	Aktiboa	Erreserbako lanpostu hutsak	Lanpostu hutsak	Betetako erreserbako lanpostuak	Betetako lanpostu hutsak
Funtzionarioak	54	36	4	14	2	11
Lan-kontratupekoa	9	8	-	1	-	-
Behin-behinekoa	1	1	-	-	-	-

2013ko abenduaren 31n, 71 lagunek lan egiten dute Udalean eta haren erakunde Autonomoetan, eta era honetara banatuta zeuden:

Langileak	Udala	Gazte-Berriak Patronatua	Guztira
Funtzionarioak	40	1	41
Lan-kontratudun finkoak	8		8
Aldi baterako kontratudunak	20	2	22
Guztira	68	3	71

Aldi baterako langileak, funtsean, gaixotasunengatiko bajak, lanaldi-murrizketak, lanpostu hutsak eta abar betetzeko kontratatutakoak dira.

2012ko ekitaldiarekin alderatuta, 3 pertsona gutxiago daude.

Udalaren berriazko langileak honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Kopurua
Administrazio orokorra	4
Administrazio finantzarioa	3
Zerga-administrazioa	3
Polizia	19
Haur Eskola	16
Ikastetxe publikoa	2
Euskara zerbitzua	1
Parkeak eta lorategiak	4
Mantentze-lanetako langileak	6
Enplegua sustatzea	0
Berdintasuna	1
Hirigintza	1
Kirol instalazioak	8
Guztira	68

Hau da, udaltzaingo-zerbitzuaren eta haur eskolaren artean langile guztien ehuneko 51 egiten dute.

Udalak honako araua onetsi zuen: “Antsoaingo Udalaren eta bere Patronaturen zerbitzuko langile funtzionarioen lan-baldintzei buruzko erabakia, 2009-2012 urteetarako”. Ganbera honek Udalari buruzko txostenetan behin eta berriz adierazi duen bezala eta Udaleko kontu-hartzaileak oroitidazkietan azaldu duen bezala, hitzarmen honen 10. artikuluan arautzen den jaiegunetarako lanaren ordain ekonomikoa –funtsean udaltzaingoari eta kirol-instalazioetako langileei aplikatu dakiokena– Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuan eta gainontzeko ordenamendu juridikoan aurreikusitakoa baino handiagoa da, bereziki jaiegun ez diren egunetako lanaldien zati bat jaiegun gisa hartzen baitu.

Langile-gastuen lagin bat aztertuta, honako ondorioak atera ditugu: oro har, langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daude; ordaindu diren lansariak betetako lanposturako erabakitakoak dira; ordainsari horiek 2013an izoztu dira, eta egindako atxikipek zuzenak dira.

Hona gure gomendioak:

- *Plantilla organikoan sartuta dauden lanpostuak arrazoizkotasunez bete diren aztertzeko prozesua osatzea, hura benetako premietara egokitzen dela egiaztatu ahal izateko.*

- *Udalaren lan-baldintzei buruzko akordioko 10. artikulua Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuan nahiz gainerako ordenamendu juridikoan ezarritakora egokitzea, batez ere jaieguntzat hartzen denari dagokienez.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 3,30 milioi euro egin dute 2013ko ekitaldian; guztira, ekitaldiko gastuen ehuneko 43 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 45 egiten dute.

2012. urtearekin alderatuta, ehuneko 15 egin du behera; horrek 575.173 euroko zenbatekoa egiten du. Horren azalpena da, funtsean, beste enpresa batzuek egindako lanengatiko gastuak (489.600 euro) behera egin duela, kirol instalazioetarako laguntza kontratu berriaren eta udal eraikinen garbiketa-zerbitzuaren kontratazio berriaren ondorioz, bai eta lorezaintzako eta argiteria publikoko zerbitzuetan egindako berrikuspenen ondorioz ere.

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe daude):

Deskribapena	Kontratu-mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa	2013an exekutatuak
Eraikinen garbiketa eta aretoen kontrola	Laguntza	Irekia, Europan publizitatea eginda / eskaintza onena	116.569	2	107.998	87.095 ₁
Kirol-instalazioetarako laguntza	Laguntza	Irekia, Europan publizitatea eginda / eskaintza onena	530.750	2	482.980	281.739 ₂

^[1] Kontratua 2013-03-11n hasi zen; hori dela eta, 9 hilabete eta 20 egun bete dira 2013ko ekitaldian.

^[2] Kontratua 2013-06-01ean hasi zen; hori dela eta, 7 hilabete bete dira 2013ko ekitaldian.

Espeditente horiei eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz egindako azterketaren bitartez egiaztatu da behar diren fakturekin justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta aplikatzekoa den araudia zentzuz errespetatu dela.

VI.4. TRANSFERENTZIA ARRUNTEN ONDORIOZKO GASTUAK

Izaera hori duten gastuek 0,525 milioitan egin dute gora. 2013an sortutako gastu guztien ehuneko 7 eta gastu arruntten ehuneko 7 egiten dute. Hona haiei buruzko xehetasunak:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2012	2013	2012/2013
Udalei	8.555	0	-100
Zerbitzu administratiboan batasunei	1.281	2.638	106
Mankomunitateei	410.467	399.338	-3
Familiei	21.555	25.005	16
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	132.953	93.031	-30
Beste transferentzia batzuk	5.355	5.416	1
Transferentzia arruntak	580.166	525.428	-11

2012arekin alderatuz gero, gastu horiek ehuneko 11 jaitsi dira.

2013an emandako diru-laguntza nagusiak mankomunitatutako zerbitzuak finantzatzekoak izan ziren; izan ere, zerbitzu horietara bideratu da kapitulu honetako gastu guztien ehuneko 76.

2008tik, Udalak ordenantza orokor bat dauka honako xedeetarako ematen diren diru-laguntzei buruz: kultura, hezkuntza, kirola, gazteria, laguntza, laguntza humanitarioa eta arlo soziala. Halaber, 2013an, zenbait deialdi publiko egin dira kultura eta lankidetzaren arloetako jarduerak egiteko. Gainera, beste diru-laguntza batzuk ere badaude, zuzenean ematen direnak (ikastetxea, parrokiako Caritas, Gutxitu Fisikoen Elkarte eta taxi-bonoa, Errege-kabalgata, Olentzero, Erraldoien eta Kilikien Konpartsa).

Egindako azterketatik ondorioztatzen da gastu horien kudeaketa egokia izan dela, oro har.

VI.5. INBERTSIOAK

2013. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (0,38 milioi) ehuneko 67 bete da, eta 0,26 milioira iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldiko betebeharrak guztien ehuneko 3.

2012arekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 149 –hau da, 0,15 milioi– egin dute gora.

Honakoak izan dira 2013an egindako inbertsioetako gastu nagusiak:

Inbertsioa	Zenbatekoa
Kirol instalazioetarako makineria	5.895
Haur eskolarako lokalak	238.972
Udal planaren berrikuspen proiektua	3.509
Hiriko zuhaitzak	3.767

Adierazi beharra dago espediente gehienak prozedura negoziatuaz izapidetu direla, Europar Batasunean publizitaterik egin gabe, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 73.4.e) artikuluan aurreikusitako izapideak direla eta. Eska daitezkeen izapide bakarrak dira kreditua aurrez erreserbatzea eta faktura aurkeztea.

Haur eskolarako lokaletan egindako inbertsioari dagokion zenbatekoa bere titulartasuneko ondasun desjabetuen ordaintzeko zegoen prezio zuzenaren ordainketa da. Errekerimendua legez egindakoa da, Tokiko Gobernu Batzarraren 2013ko martxoaren 20ko erabakiaren indarrez.

VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2013ko ekitaldian aitortutako eskubideak 7,06 milioioak izan dira; ehuneko 99 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerari dagozkie. Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 85ekoa izan da.

Diru-sarrera arruntan artean tributuen bidezko diru-sarrerak (4,12 milioi eurokoak) eta transferentzia arruntak (2,9 milioi eurokoak) nabarmentzen dira.

Udalak ez du nabarmentzeko moduko diru-sarrerarik jaso 2013ko hirigintza-eragiketen ondorioz.

2012. urtearen aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko 3 murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%) 2012/2013
	2012	2013	
1. Zuzeneko zergak	2.317.702	2.436.359	5
2. Zeharkako zergak	230.194	27.403	-88
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.821.480	1.652.329	-9
4. Transferentzia arruntak	2.901.221	2.923.763	1
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	16.128	13.068	-19
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	7.286.726	7.052.923	-3
6. Inbertsioen besterentzea	-	-	
7. Kapital-transferentziak	-	9600	
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	-	9600	
8. Finantza-aktiboak	-	-	-
9 Finantza-pasiboak	-	-	-
Finantza-eragiketen diru-sarrerak (8 eta 9)	-	-	-
Diru-sarrerak, guztira	7.286.726	7.062.523	-3

3. kapituluaren barruan, nabarmentzekoa da behera egin dutela kirol instalazioen erabiltzaileen kuoten bidezko diru-sarrerek; izan ere, 2012koen aldean ehuneko 9 egin dute behera, izena emandakoek baja ematearen ondorioz. Horren arrazoiak bi dira: krisi ekonomikoa eta Berriobeitiko Udalaren kirol instalazioek egiten duten lehia. Udala hainbat kudeaketa modu ari da aztertzen egoerari konponbidea emateko, ustiaketan oreka aurkitze aldera. Abenduaren 31n, 3.992 bazkide zeuden instalazioetan izena emanda.

Taula honetan erakusten da nolako eboluzioa izan duten aitortutako eskubideek udal zerga bakoitzean:

Diru-sarrereren kapituluak	Aitortutako eskubideak		Aldearen ehunekoak
	2012	2013	2012/2013
Lurraren kontribuzioa	1.304.944	1.502.969	15
Ibilgailuak	478.416	489.064	2
Lurren balio-gehikuntza	283.466	210.533	-26
JEZ	250.877	233.794	-7
EIOZa (eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga)	230.194	27.403	-88
Guztira	2.547.897	2.463.763	-3

Alde garrantzitsuenak eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergan (EIOZ) ikusten dira. Izan ere, diru-sarrera horiek ehuneko 88 egin dute behera aurreko ekitaldian aitortutako eskubideekin alderatuta. Aurrekontuan jasotakoaren ehuneko 11 baizik ez da exekutatu, eraikuntza-jardueran bat-batean izandako beherakada dela eta.

Balorazio-ponentziaren azken eguneratzea 2011n egin da.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortako tarte ertain/altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,21	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,8 eta 3,4 bitarte	2,1 - 3,6 bitartean
Zerga-tasa	12,28	8tik 20ra
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2 - 5

Tasa horiek, izoztu egin dira 2012. urtearekin alderatuta, kontribuzioaren kasuan izan ezik.

Diru-sarrereren aurrekontu bateratuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, oro har egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

Hona gure gomendioak:

- Gaur egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta, diru-sarrereren aurrekontua egitean likidaziorako benetako aukerak kalkulatzeko saiatzea.

- Kirol instalazioak kudeatzeko modu egokienari buruzko azterketa-prozesua amaitzea, kontuan hartuta nolako eragina daukan udal finantzetan eta zein den egungo egoera ekonomikoro korra.

VI.7. HIRIGINTZA

Antsoingo Udalak bere baliabideekin betetzen ditu hirigintzako zereginak.

Antsoingo Udalaren Antolamendu Plana 1997an onetsi zen, eta ia erabat garatuta dago.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– indarrean zeuden planeamenduak homologatzeko eta moldatzeko. 2009an, Udala bere plana aztertzen hasi zen. 2012an, Udalaren Osoko Bilkurak udal plan berria eta dagokion ingurumen-eraginaren azterlana hasiera batez onetsi ditu, eta bi hilabetez jarri ditu jendaurrean. 2013ko irailaren 25ean, Udalbatzako Osoko Bilkurak Antsoingo Udal Plan Orokorra onetsi zuen, eta hasierako onespeneraren ondoren aurkeztutako alegazioak ebatzi zituen.

Udalak ez du Lurzoruaren Udal Ondareari dagokion berariazko inbentario eta erregistrorik, nahiz eta Lurzoruaren Udal Ondaretik datozen baliabide atxikien jarraipena egiten duen.

1994tik 2013ra, Udalak, ondarearen besterentzetik eta hirigintza-aprobetxamenduetatik, 17,25 milioi hartu dituela, eta 1,47 milioiko zenbatekoa egiten duten inbertsio berrien finantzaketa aplikatzeko dagoela.

Hona gure gomendioak:

- *Hirigintza-plangintza Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenetara moldatzeko prozesua osatzea.*

- *Udalaren lurzoru-ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta dagoela.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2014ko irailaren 2an.

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas